


EUROA, BAI



- **Diru-batasunaren onura** nagusien artean, **ziurgabetasuna ekiditea** da; esaterako, truke-tasen aldakortasunak eragiten duena. Eta, **ekonomia-trukerako** ez ezik, ekonomia-hazkunderako ere ezinbestekoa da **egonkortasuna**.
- **Europar Batasunarentzat onuragarria da euroa dibisa nagusi izatea**, eta **merkataritzarako truke-komisiorik** ez izatea euroa nazioarteko salerosketetan.
- Gainera, **prezioak** modu errazean **konparatzeko aukera** izateak nazioarteko **merkataritza sustatzen du**: euroa dugunetik, Europako herrialdeen arteko **salerosketak errazagoak dira**.
- Txanpon bateratua izatea **mesedegarria da komertzioari eta inbertsioei begira**: Europatik kanpoko inbertsiogileak ere erakarri egiten ditu.

EUROA, EZ



- Diru-politika nekez adostu ahal denez inor kaltetu gabe, Europako Banku Zentralak **diru-politika bateratua inposatzen du**.
- Diru-politika uniforme ezartzea arazo-iturria da, herrialde oso aurreratuak eta garapen eskasekoak baitaude elkarturik Europar Batasunean.
- Moneten arteko truke-tasak desagertu egin dira, bai; baina benetako arazoa beste bat da eta oraindik hor dago: **finantza-merkatuen egonkortasunik eza**.
- Eurotik kanpo ezin dela bizi entzuten da, baina hor dira **ekonomia indartsua duten herrialdeak**: Britainia Handia, Danimarka eta Suedia, adibidez.